



**Arartekoaren 2020R-1668-19 Ebazpena, 2020ko urtarrilaren 20koa. Horren bidez, Haurreskolak Partzuergoari gomendatzen zaio irakaskuntzako bitarteko funtzionarioen eginkizunen aldi baterako etete-egoera eta eszedentzia-egoera pareka ditzala, haur berriak onartzeko prozesuetan guraso edo legezko tutoreek duten lan-egoerari buruz ezarritako puntuazioaren ondorioetarako; horrez gain, familia kexagilearen kasu zehatzean, berriz azter dezala 03/10-2019 Erabakiaren bidez hartutako erabakia.**

### Aurrekariak

1. Arartekoak familia baten kexa-idazkia jaso zuen. Familia horrek parte hartu zuen 2019ko maiatzean Haurreskolak Partzuergoaren mendeko haur-eskoletan haur berriak onartzeko prozesuan.

Kexa horrek gora jotzeko errekurtsua aurkeztera eraman zuen arrazoi bereberri erantzuten die, gurasoen lan egoeratik (biak lanean daude) dagokien puntuazioa ez aitortu ondoren. Honetan datza arazoa: partzuergoak ez zuen kontuan hartu adingabearen ama zerbitzu aktibora itzuli izana irakaskuntzako bitarteko funtzionario gisa aldi baterako etete-egoeran izan ondoren.

2. Kexa izapidetzeko onartzeko erabakia hartu ondoren, Arartekoak baloratu zuen egokia zela partzuergoko gerentziara jotzea erakundera kexa aurkeztuz jo zuen familiak aurkeztutako errekurtsoari eman nahi zitzaion tratamendu arrazoituaren berri izateko.
3. Gerentziak eskaera horri erantzun zion eta, une horretan errekurtsoari emango zitzaion tratamenduari buruzko iritzia eman ez zuen arren, hartutako erabakiak justifikatu zituen argudio bikoitza erabiliz. Lehenengo argudioa haurreskoletan neska-mutilak onartzeko arautegiari eta irizpideei buruz indarrean dagoen erabakiaren (07/10-2018 Erabakia) ingurukoa da; bigarrena, berriz, formari dago lotuago, eta onarpen-prozesuak kudeatzeari begira ezarri diren prozedura-arauei buruzkoa da.

Hala, alde batetik, gerentziak nabarmendu nahi izan zuen, onarpen-eskaera aurkeztean, neskatilaren amaren eginkizunen aldi baterako etete-egoerak, bitarteko irakasle funtzionarioa izateagatik, ez zekarrela ez zerbitzurik ematea, ez zerbitzu aktiboko administrazio-egoera, hau da, horrek esan nahi zuela egoera hori ezin zela kontuan hartu lan-egoerari buruzko atalean puntuazioa lortzeko.

Bestalde, gerentziak onartu eta aitortu zuen, eskaera- eta erreklamazio-epeak amaitu ondoren, Hezkuntzako lurralde-ordezkariek egiaztatutako jabetza hartzeko eginbidearen kopia bat aurkeztu zela; horren bidez, egiaztatzen zen





neskatilaren ama zerbitzu aktibora itzuli zela uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin, baina honako hau adierazi nahi izan zen horri buruz:

*“Izen-ematearen araudiak agintzen duenari jarraituz, eskaerarekin aurkeztutako dokumentazioa bakarrik hartzen da aintzat, eta, beraz, ez da onartzen eskaerak jasotzeko epea bukatu ondoren aurkeztutako dokumentaziorik. Gauzak horrela, familiak epe barruan bidalitako dokumentazioak egiaztaturiko baldintzak bakarrik zenbatu zituen Partzuergoa. Behin betiko zerrenden argitaratzean, ezin izan zen uztailak 4an aurkeztu zen dokumentazioa kontutan hartu, izen emate epea itxi eta 55 egun beranduago eta erreklamazio epea amaitu ondoren aurkeztu baitzen.”*

4. Gerentziak emandako arrazoiak kontuan hartuta eta errekurtsioak ebatzi gabe jarraitzen zenez, Arartekoak baloratu zuen komenigarria zen ala ez zenbait balorazio mahai gainean jartzea, eta errepikakorrak ez izateko, ebazpen honen gogoetetan aipatuko dira.
5. Nolanahi ere, azken izapide hori gorabehera, partzuergoko gerentziak erakunde honi jakinarazi dio familiaren errekurtsioa ezetsi egin zela azkenean Zuzendaritza Batzordearen 2019ko urriaren 7ko 03/10-2019 Erabakiaren bidez. Gainera, hartutako erabakiak berriz aztertzeko asmorik ez duela adierazi du, nahiz eta erakunde honek egindako balorazioak aztertzen eta kontuan hartzen ez den hasi.

## Gogoetak

### **1. Araudia eta onarpen irizpideak - eginkizunen aldi baterako etete-egoera.**

Haurreskolak Partzuergoaren helburuetako bat familia eta lana bateragarri egiten laguntzea da. Horrek azaltzen du haur berrien onarpena arautzeko onartutako irizpideen artean egotea gurasoen edo legezko tutoreen lan egoera. Horri dagokionez, Partzuergoko Zuzendaritza Batzordearen 2018ko urriaren 18ko 07/10-2018 Erabakia kontsulta daiteke; horren bidez, 2019tik aurrera Haurreskolak Partzuergoan aplikatu beharreko haurren onartzeko araudia zein irizpideak onartzen dira.

Erabaki horrek, sor daitezkeen egoerei dagokien puntuazioa zehaztu ondoren, honako hau ezartzen du berariaz (3.6 artikulua): *“Eszedentzia egoerak kontutan hartuko dira baldin eta lan-bizitzaren ziurtagiriarekin batera enplegatzaileak emandako ziurtagirian lanpostura itzultzeko data zehazten bada eta data hori gehienez haurra haurreskolan hasi eta hilabete bat beranduagokoa bada.”*





Arartekoak bere garaian partzuergoko gerentziari helarazi zizkion balorazioetan honako hau agerian jarri nahi izan zen:

“Jakingo duzunez, udal horrek hezkuntza-sektorearekin duen lotura dela-eta, zerbitzuen etete iragankorra da Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioan (62. artikulua) jasota dauden egoera berezietako bat.

Egoera hori baliatu du hezkuntza-administrazioak bitarteko irakasleei beren seme-alaba adingabeen zaintzaz arduratzea errazteko. Modu horretan, Konstituzio Auzitegiak bere garaian hartutako norabidearekin bat egin du administrazio horrek, mota horretako langileen izendapenek dituzten berezitasunak —ikasturte batetik bestera berritzen dira— gorabehera. Izan ere, Konstituzio Auzitegiaren 1999ko abenduaren 20ko 240. epaian adierazi zen bitarteko funtzionarioei seme-alabak zaintzeko eszedentzia ukatzeak urratu egiten zuela langile horien berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea, Konstituzioaren 14. artikulua bermatutakoa.

Aipatu beharra dago erakunde honek uste zuela udalak ez zuela eragozpenik bitarteko irakasle funtzionarioen etete-egoera onarpen-araudi eta irizpideetan berariaz jasota dagoen eszedentzia-egoerarekin parekatzeko, beste inguruabar garrantzitsu batzuei buruzko —hala nola, ama, aita edo legezko tutorearen lan-egoera— baremoaren atalean aurreikusitako puntuazioa emateari begira. Erakunde honetan aurretik aurkeztutako beste kexa batzuen harira egin genituen izapide informalen ondorioz ziur geunden hori horrela zela.

(...)

Nolanahi ere, hala ez bada, aurreratzen dizut Arartekoak udal horri gomendatuko liokeela ez dezala trabarik jarri bi egoera horiek parekatzeko onarpen-prozesuko baremo horri buruzko atalerako aurreikusitako puntuazioa aitortzeari begira. Erakunde honen iritziz, indarrean dauden onarpen-arauetan irakasle funtzionarioen egoera berezi hori, alegia, funtzio-geldiera, berariaz jaso ez arren, aintzat hartu beharra dago arrazoi berak —lana eta familia bateragarri egiteko aukerak handitzea— eragiten duela bai egoera horretan egotea eta bai seme-alabak zaintzeko borondatezko eszedentzia hartzea. Hori dela tarteko, gure ikuspegitik, baremoaren aurreikuspen hori halabeharrez aplikatu behar zaie, analogiaz, funtzio-geldieran dauden irakasle funtzionarioei (Kode Zibilaren 4.1. artikulua).”

Hala ere, tamalez, erakunde honi emandako erantzunean, gerentziak Haurreskolak Partzuergoan haurrak onartzeko arauari eta irizpideei buruz indarrean dagoen erabakiaren hitzez hitzeko edukia baino ez du errepikatu, bai eta irakasleen funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen erabakian aldi



baterako eteteari buruz jasotzen den erregulazioaren edukia ere, egoera hori zerbitzu aktiboarekin parekatu ezin dela azpimarratzeko eta, hala, bere erabakiak berriz aztertzeke asmorik ez duela justifikatzeko. Dena den, gerentzia ez da inoiz aztertzen hasi Arartekoak egindako balorazioak, hizpide dugun ondorioetarako, eszedentziaren eta eginkizunen aldi baterako etete-egoerek duten identitateari buruz, eta, beraz, egoera horiek kontuan hartzeko aukeraren gaineko alderdian aurreikuspen berdinak aplikatzeko betebeharrari buruz, baldin eta lanera itzultzeko data jasota badago. Hori dela eta, espediente izapidetzean puntu honetara iritsita, gerentziak ez duenez aurkakotasun funtsaturik izan, Arartekoak atzera lerratu diren balorazio berberak errepikatu ditu; hori guztia familia eta lana bateragarri egiten laguntzeko azken asmoarekin, hau da, beren seme-alabak haur-eskoletan sar daitezen, Haurreskolak Partzuergoak berak ere egin nahi duen moduan.

## **2. Onarpen prozesuen prozedurako edo kudeaketako arauak.**

Bigarren puntu hau joratu aurretik, egokia da azaltzea interesdunak, alaba onartzeko eskaera aurkezteko unean, gerentziaren arabera, soilik lan-bizitzaren ziurtagiri bat baino ez zuela aurkeztu. Behin-behineko zerrendak argitaratu ondoren prestatutako erreklamazio-epean ere ez zuen dokumentazio gehigarririk aurkeztu. Epe horiek guztiak amaitu ondoren aurkeztu zuen zerbitzu aktiboan berriz hasten zela egiaztatzen zuen ziurtagiria.

Arartekoak partzuergoko gerentziari helarazitako balorazioetan, honako hau aipatu zen:

“Onarpen-prozesuak kudeatzeari begira ezarri diren prozedura-arauei buruzko kontu formalei dagokienez, erakunde honi emandako erantzunean berriz ere adierazi da ezin dela aintzat hartu haur horren amak aurkeztutako lanpostuaz jabetzeko eginbidearen kopia, eskaerak aurkezteko epea igarota zenean aurkeztu baitzen hura, eta erreklamatzeko eta dokumentazioa zuzentzeko epekan kanpo.

Erakunde honek onartzen du parte-hartzaileen kopuru handiko prozesuen kudeaketan ohikoa izaten dela eskaerak zuzentzeko eta hobetzeko epea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (39/2015, urriaren 1ekoa) 68.1. artikuluan araututakoa, bat etortzea mota horretako prozesuak izapidetzeko ezarri ohi diren erreklamazio-epeetako batekin. Kasu honetan, behin-behineko zerrendak erreklamatzeko eta zuzentzeko epearekin dator bat.

Nolanahi ere, epe horiek bat etortzea guztiz eraginkorra izan dadin, errekerimendua egin behar da, berariaz adieraziz zein diren zuzendu





beharreko alderdiak. Hizpide dugun kexan, baina, ez zen horrelako errekerimendurik egin.

Horri dagokionez, kexagileek behin eta berriro esan dute une oro jakinarazi zietela haurreskolako langileei zein zen beren egoera, eta haiek ez zietela eman eskaera zuzentzeko edo hobetzeko zituzten aukeren berri.

Beharbada hauxe da unea gogorarazteko udal horrek onetsitako onarpen-araudiak berak ezartzen duela familiek gurasoen lan-egoera baliatu nahi badute eta horiek borondatezko eszedentzian badaude, lanpostura zer datatan itzuliko diren dioen egiaztagiria (enplegu-emaileak egina) aurkeztu beharko dutela lan-bizitzaren txostenarekin batera.

Beste kexa-espeditente batzuen harira egindako izapideen ondorioz, erakunde honek egiaztatu du, dirudienez, udal horrek lurralde-ordezkariek egindako egiaztagiria aurkezteko aukera eman diela beste irakasle funtzionario batzuei; horietan, aurreikuspenen arabera interesdunak lanera noiz itzuliko ziren jaso izan da, bai eta pertsona horiek zentzu berean egindako adierazpenak ere, betiere administrazio-erregistroko izapidea egin ondoren.

Aitzitik, aurreratu dugunez, aztergai dugun kasuan, interesdunei ez zaie errekerimendurik egin hobetu zitezkeen alderdien berri emanez. Haiek aurkeztu dute, aurrerago, zerbitzu aktibora itzuli izana egiaztatzeko dokumentazioa.

Azken horri dagokionez, jarraitutako prozeduraren ezaugarriak ikusita, erakunde honi neurritz kanpoko irudituko litzaioke udal horrek prozeduraren legearen 68.1. artikulua araututako eskaerak zuzentzeko eta hobetzeko epea eta behin-behineko zerrendak erreklamatzeko epea bat etorraztea, hain zuzen ere, interesdunak aurkeztutako dokumentazioa aintzat hartzeari uko egiteko, epez kanpo aurkeztu dela jota.

Arartekoaren iritziz, horrela jokatz gero, babesgabetasun-egoera argian jarriko litzaiteke interesdunak, ez litzaiekeelako aukerarik emango hautemandako akatsak zuzentzeko administrazioak horren inguruko errekerimendu formala egin aurretik. Horixe adierazi izan du Auzitegi Gorenak zenbait erabakitan, ekonomia-, lastertasun- eta eraginkortasun-printzipioak aplikatuz, baita ofizioz bultzatzearena ere (2000ko uztailaren 17ko epaia; errekurtsio-zenbakia: 4621/1995)."

Erakunde honi emandako erantzunean, gerentziak berriz ere esan du aurkeztutako dokumentazioa ezin dela kontuan hartu (*"ezin dela kontuan hartu uztailaren 4an, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta 55 egunera eta*





*erreklamazioak jartzeko eta dokumentazioan izandako okerrak zuzentzeko epetik kanpora, aurkeztu zen dokumentazioa, batetik indarrean dagoen araudia ez betetzea litzatekeelako eta, bestetik, plaza horretan interesa duten beste familia batzuentzat bidegabe izango litzatekeelako".) baina horri buruz helarazitako balorazioak aztertzeari eta ezeztatzeari uko egin dio berriro. Horrenbestez, Arartekoak berriz ere aurre egin behar dio aurreko balorazioetan errepikatzen behartzen duen aurkakotasun arrazoituaren gabeziari.*

Bere ustez, gerentziak erakunde honek iradokitako moduan bere jarduna berriz aztertzeak dakarren ustezko bidegabekeriari buruz emandako argudioa kontuan hartuta, argudio hori ez da zuzena; izan ere, helburua da egokia izan ez den jarduketa bat zuzentzea eta familiari egindako onarpen-prozeduran hasieratik eman behar zitzaion tratamendua ematea.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Haurreskolak Partzuergoari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

## **GOMENDIOA**

Irakaskuntzako bitarteko funtzionarioen eginkizunen aldi baterako etete-egoera eta eszedentzia-egoera pareka ditzala, haur berriak onartzeko prozesuetan guraso edo legezko tutoreek duten lan-egoerari buruz ezarritako puntuazioaren ondorioetarako; horrez gain, familia kexagilearen kasu zehatzean, berriz azter dezala 03/10-2019 Erabakiaren bidez hartutako erabakia.

